

IRAGARKIA

Hernaniko Udaleko Ogasun eta Ondare Batzordeak – Kontuetako Batzorde Bereziak apirilaren 17an egindako bileran, Hernaniko Udalaren 2017 ekitaldiko Kontu Orokorren aldeko txostena eman du.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.3 artikuluek xedatutakoa betez, aipatutako espedientea jendaurrean ikusgai jarriko da, 15 egunez, nahi duenak erreklamazioak, eragozpen-adierazpenak eta oharrak aurkeztu ahal izateko. Batzorde bereziak haiek aztertu eta bidezko jotzen dituen egiaztapenak egin eta gero, beste txosten bat egingo du.

Kontu Orokorra, Batzorde Bereziaren txostenekin eta egindako erreklamazio, eragozpen-adierazpen eta oharrekin batera, Osoko Bilkuran aztertuko da, udalbatzak, hala badagokio, onar dezan.

Hernani, 2018ko apirilaren 18a.- Luis Intxauspe Arozamena, Alkatea.